

Alex Soto: “Inoiz baino hobeto nago”

Alex Sotoren azken lorpena izan da martxoan Espainiako promesa txapelketa irabaztea (2'18m.). Nahiz eta futbolekin hasi, 14 urterekin Espainiako altuera jauziko txapelketa irabazi eta errekorra lortu zuen, 2'04m. jauzi ondoren. Hala ere, bere ibilbidea ez da erraza izan, 1'94m.ko altuera duen 20 urteko gazteak, gora-beherak izan baititu bere karreran.

- Nola laburbilduko zenituzke zure karreraren azken urteak eta emaitzak?

Bada, 18 urterekin, ezin hobeto nengoenean, estres-haustea egin nuen orkatilan. 19 urterekin urte sabatikoa izan nuela esan daiteke, entrenatzen nuelako baina ezin nuelako saltorik egin, fisikoki gaizki nengoelako. Lesioaren ostean apurka-apurka entrenatzen hasi nintzen, baina egia esanda ez nuen pentsatuta probarik prestatzea ezta emaitza oso onak lortzea ere. Hala eta guztiz ere, martxoaren hasieran, 2'18m.ko jauzia egin nuen Donostian ospatutako Espainiako pista estatutako txapelketan eta txapeldun izan nintzen.

- Egutegia prestatu duzu estalperik gabeko txapelketetan parte hartzeko?

Bai, ekainean Espainiako promesa txapelketan (23 ur-

tetik beharagoentzat) parte hartuko dut. Uztailean, Europako promesa txapelketa egingo dut eta abuztuan, Espainiako txapelketa absolutuan parte hartuko dut.

- Aukerarik izango duzu?

Ez dakit, baina itxaropen handiak ditut, aurtengo inoiz baino hobeto nago. Burua ere oso ondo daukat eta arazorik ez ematea espero dut. Hala ere, nire ahulgunerik handiena neure burua da. Goi-goian egotetik lurrera jausten naiz batzuetan.

- Hori dena lortzeko zenbat entrenatzen duzu?

Astelehenetik larunbatera entrenatzen dugu eta guztira 9 saio egiten ditugu, 6 arratsaldean eta 3 goizean eta gainera ikasten ere jarraitzen dut.

- Beste gauza batzuk galdetzen ari zarela pentsatu izan duzu inoiz?

Bai, batzuetan pentsatzen



dut: gaztea naiz, gauza asko ditut bizitzeko oraindik... Baina ondo aztertzen badut, zera ikusten dut: Marokon, Lituaniar, Italian, Frantziar, Txinarr, Errusiar egoteko aukera izan dudala eta ehunka lagun egin ditudala bertan. Txinako mundialera joan ginenean, adibidez, 14 egun pasa genituen bertan. Nik hirugarren egunean lehiatu behar nuen, eta gainontzekoetan Txina ezagutzeko aukera izan nuen lagunekin. Gainera abuztuan libre izaten dugu, noizbehinka parrandak beharrezkoak direlako.

- Diru-laguntzarik jasotzen duzue?

Bidaia eta egonaldiak Espainiako Federazioak ordaintzen ditu eta marken arabera ere beka batzuk ematen dira. Euskadin ez dago laguntzarik eta Ermuan ez dago ezer. Herri Espainiako 8 txapeldun

egon gara, 3 momentu honetan (Javier Villalobos eta Natalia Ourmakaeva). Betiondoko instalazioak egin dizkigute eta ez gara kexatzen, baina hotz handiagoa egiten du barruan kalean baino.

- Euskal Herritik kanpora joatea pentsatu duzu?

Ez, munduko entrenatzaile onena dudalako, Antonio Cid. Bere lana goraiatu nahi dut, batzuetan bere familia alde batera lagatzen duelako gurekin egoteko eta, nahiz eta berarekin eztabaidak izaten ditudan, azkenean aita bezalakoa da eta bere lana asko eskertzen dugu.

- Zer lantzen duzue?

Altuera jauzian indar asko edukitzeak eta jauzi handiak egiteak, ez dute ezertarako balio tekniarik gabe, teknika da garrantzitsua. Zerbait zuzendu behar da beti, eta hori frustrantea izaten da.

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA
URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3
Telefonoa: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGaña
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR